



KSI-ei ZUZENDUTAKO BERRIKUNTZA DEIALDIAK 2025



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Dokumentu honek Kultura eta Sormen Industriari (KSI) zuzendutako Berrikuntzaren inguruko proiektuak garatzeko laguntzak biltzen ditu.

Gero eta interkonektatuago dagoen mundu honetan, KSlek funtsezko zeregina betetzen dute berrikuntza, sormena eta garapen iraunkorra sustatzeko. Sektore hori indartzearen garrantziaz jabetuta, datu-base hau sortu dugu, proiektuak garatzeko hainbat finantzaketa-aukera biltzen dituen, KSlen hainbat interes-arlo jorratuz, betiere **Berrikuntzari** lotuta.

Aurkibide bat topatuko duzu, eta, ondoren, deialdi bakoitzaren informazio-fitxak, jatorriaren arabera egituratuak (Euskadi, Espainia edo Nazioartekoak -Europa-, dirulaguntzak zehaztuta), eta, azkenik, esteka osagarri batzuk. Pdf interaktibo bat da, lotura zuzenen bidez nabigatzeko eta informazioa eskuratzeko aukera ematen duena.

Garrantzitsua da honako hauek kontuan hartzea:

- Fitxa bakoitzak laguntzari buruzko informazio espezifiko ematen du:
 - ◊ **Epeak:** irekitzeko, aurkezteko eta gauzatzeko egunak.
 - ◊ **Finantzaketa:** aurreikusitako aurrekontua, finantzaketaren ehunekoa, aurreikusitako zenbatekoa eskatzaile bakoitzarentzat, diruz lagundu daitezkeen mugak eta gastuak.
 - ◊ **Zertarako balio duen:** helburuak eta onuradunak.
 - ◊ Deialdiaren webgune ofizialerako **esteka**.
- Bilduma honetan, irekita dauden deialdiak nahiz 2025erako irekitzea aurreikusten diren deialdiak aurkituko dituzu (deialdi horien 2024ko antzeko datetan).

AURKIBIDEA



EUSKADI

- 05 HAZITEK 2025**
▷ SPRI
- 06 BARNE EKINTZAILE**
▷ Eusko Jaurlaritza - SPRI
- 07 INNOBIDEAK-KUDEABIDE**
▷ Foru Aldundiak eta SPRI
- 08 FAST TRACK INNOBIDEAK**
▷ Eusko Jaurlaritza - SPRI
- 09 HAZINNOVA**
▷ Eusko Jaurlaritza - SPRI
- 10 KONEXIOAK**
▷ KSIgune
- 11 BITARTEZ**
▷ Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
- 12 BIZKAIA SORTZAILEA 2025**
▷ Bizkaia Sortzailea 2025
- 13 BDIH KONEXIO**
▷ Eusko Jaurlaritza - SPRI
- 14 ADIMEN ARTIFIZIAL APLIKATUA ETA DATUAREN ESTRATEGIA**
▷ SPRI

ESPAINIA

- 15 KSIETAKO BERRIKUNTZA PROIEKTUAK**
▷ Proiektu profesional eta enpresarialetarako laguntzak, kultura eta sormen industrietan berrikuntza sustatzeko (Kultura Ministerioa)
- 16 BERRIKUNTZA DIGITALEKO ZENTROEI LAGUNTZEA (PADIH)**
▷ Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana. Espainiako Gobernua
- 17 ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZAKO MISIOAK**
▷ Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroa (CDTI)
- 18 EUROSTARS-3**
▷ Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroa (CDTI)
- 19 FOND-ICO NEXT TECH FUNTSA**
▷ Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

AURKIBIDEA



EUROPA

- 20 JOURNALISM PARTNERSHIP - PLURALISM**
▷ Europa Sortzailea Programa (CREA)
- 21 NEWS - MEDIA LITERACY**
▷ Europa Sortzailea Programa (CREA)
- 22 VIDEO GAMES AND IMMERSIVE CONTENT DEVELOPMENT**
▷ Europa Sortzailea Programa (CREA) - Media
- 23 CREATIVE INNOVATION LAB**
▷ Europa Sortzailea Programa (CREA)
- 24 BERRIKUNTZA SORTZAILERAKO LABORATEGIA**
▷ Europa Sortzailea Programa (CREA)
- 25 DIGITAL INNOVATION HUBS-I LAGUNTZEKO PROGRAMA**
▷ Europa Digital programa - Industria Antolakuntzako Eskola
- 26 ETEEN AZELERAZIOA ETA ZABALKUNTZAK**
▷ EIT Culture & Creativity
- 27 EIT BERRIKUNTZA 2024-CALLS FOR PROPOSALS**
▷ EIT Culture & Creativity
- 28 EIC ACCELERATOR 2025 - SHORT APPLICATION**
▷ Horizon Europe (HORIZON)

- 29 ESTEKA INTERESGARRIAK**



PROGRAMA	SPRI.
INTERES ESPARRUA	Berrikuntza teknologikoa sustatzen duten I+G proiektuak, produktuan edo prozesuan. Proiektuek Eusko Jaurlaritzaren RIS3 estrategiarekin bat etorri behar dute: KSlei (Kultur eta Sormen Industriak) laguntzea estrategia horretan ezarritako "aukera lurraldeetako" bat da.
HASIERA ETA ITXIERA	2025eko urtarriletik 2025eko martxora, gutxi gorabehera.
ZENBATEKOA	<p>Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak, proiektu motaren eta lortutako notaren arabera, onartutako aurrekontuaren gainean intentsitate hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektu lehiakorrak (aurrekontu txikiak): onartutako aurrekontuaren %25 eta %40 artean. • Proiektu estrategikoak (4 milioitik gorako aurrekontu konbinatuekin lankidetzan): %25 eta %50 artean. <p>Dirulaguntza ez-itzulgarria 500.000 eurokoa izango da gehienez, erakunde onuradun eta urte bakoitzeko.</p>
HELBURUAK	Programa honek I+G proiektu lehiakorrak edo estrategikoak babesten ditu (gutxienez 3 enpresa lankidetzan), produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzeko. Proiektuek I+G jarduerak barne hartu behar dituzte: hau da, jarduera sektorerako berrikuntza teknologikoa izateaz gain (ez enpresarentzat bakarrik), arriskua dakarren erroka teknologikoa planteatu behar dute.
ONURADUNAK	EAEEn gutxienez instalazio produktibo bat baduten enpresak, baldin eta proiektua han garatzen badute.
LANKIDETZA	Hirugarren batekin lankidetzan aritzea aukerakoa da programa honen onuradun izateko, nahiz eta lankidetzan proiektuek laguntza handiagoa jaso dezaketen.
INFORMAZIO GEHIAGO	https://www.spri.eus/es/ayudas/hazitek/

BARNE EKINTZAILE

EUSKADI



PROGRAMA	Eusko Jaurlaritza - SPRI
INTERES ESPARRUA	Enpresa arlorako duzun ideia berritzailea eta/edo oinarri teknologikoduna aztertu dadin laguntzea.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko otsaila/martxoa.
ZENBATEKOA	1. sorta: 1.700.000 € / 2. sorta: 1.000.000 €
HELBURUAK	<ol style="list-style-type: none"> 1. SORTA: Enpresa proiektu berritzaileak eta/edo oinarri teknologikoa dutenak, industrialak eta/edo prozesu industrialeko produktuari lotutako zerbitzuetakoak babestea, EAEn daudenetako Business Innovation Center (BIC) baten tutoretzapean, ideia aztertzeko eta enpresa Euskal Autonomia Erkidegoan abian jartzeko faseetan. 2. SORTA: Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa abian jartzeko fasean, enpresa proiektu berritzaileak eta/edo oinarri teknologikokoak, industrialak eta/edo produktu edo prozesu industrialari lotutako zerbitzuetakoak babestea, bai eta ezagutzetan trinkoak diren enpresa proiektuak ere.
ONURADUNAK	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona edo talde sustatzaileari laguntza ematea ideia aztertzeko eta Enpresa Plana egiteko prozesuan, harik eta abian jarri arte. Laguntza hori itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko da. • Enpresa txiki eta ertainei zuzendutako laguntza, Enpresa Plana gauzatzeko beharrezkoak diren inbertsioen finantzaketa errazteko, eta hori gauzatu da, hain zuzen, arau honen bidez eta horretarako LUZAROREkin sinatzen den hitzarmenaren arabera formalizatzen diren mailegu eragiketarako kostu finantzarioa murriztuz. • Pertsona juridikoak, talentu ekintzailea duten taldeen prestakuntza ahalbidetzen duten pertsonak enpresaren garapen arlo guztietan sartzea finantzatzeko, bai eta Enpresa Plana gauzatzeko ahalbidetzen duten gastuak finantzatzeko ere.
LANKIDETZA	Posibilidad de ir en consorcio o en colaboración con terceros.
INFORMAZIO GEHIAGO	Ekintzaile 2024. Ekintzailatza industrialari laguntzea - SPRIren laguntzak

INNOBIDEAK- KUDEABIDE

EUSKADI



PROGRAMA	Foru Aldundiak eta SPRI
INTERES ESPARRUA	Dirulaguntza programa honen bidez, kudeaketa hobetzeko proiektuak babestu nahi dira, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin lerrokatuta, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko martxoa.
ZENBATEKOA	7.650.000 euroko zuzkidura ekonomikoa du.
HELBURUAK	Kudeaketa hobetzeko proiektuak, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin lerrokatuta daudenak eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen dutenak. EUSKALITek egindako doako kanpoko kontraste baten gomendioetatik eratorriak.
ONURADUNAK	5 pertsonatik 50era arteko langile taldea duten enpresentzat, aldundientzat, eta Industria, Garraio, Eraikuntza, Industriarekin lotutako Zerbitzuak eta Handizkako Merkataritza sektoreetan diharduten enpresentzat (Arte, Jolas eta Entretenimendu Jardueren JEZ epigrafeko dibisio batzuk sartzen dira).
LANKIDETZA	Ez da beharrezkoa hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	Innobideak-Kudeabide programa

FAST TRACK INNOBIDEAK

EUSKADI



PROGRAMA	Eusko Jaurlaritza - SPRI
INTERES ESPARRUA	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planaren barruko espezializazio esparruetan berrikuntza proiektuak egiten laguntzea eta/edo berrikuntza bultzatzeko funtsezko ekintza osagarriak egitea.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko martxoa.
ZENBATEKOA	7.700.000 €
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Produktu eta ekoizpen prozesuak TRL altuetan (TRL 7-9) garatzea. • Produktu eta ekoizpen prozesurako teknologiak txertatzea. • Negozio prozesuetan metodologiak txertatzea. • Negozio ereduetan. • Kudeaketa Aurreratua - KUDEABIDE. • I+G+b nazioartekotzea. • I+G+b babestea eta balioztatzea.
ONURADUNAK	Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ETE industrialak eta produktu zein prozesu industrialari lotutako zerbitzuetakoak. Gutxienez 50 pertsona aritzea Kudeabide Ilerroan (Kudeaketa Aurreratua).
LANKIDETZA	Ez da beharrezkoa partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	Fast Track Innobideak 2024 -SPRIren laguntzak

HAZINNOVA

EUSKADI



PROGRAMA	Eusko Jaurlaritza - SPRI
INTERES ESPARRUA	Euskal enpresaren berrikuntza bultzatzeko gauzazko laguntzak, produktuan eta negozioko prozesuetan berrikuntza txikiak sortzen dituzten mikroproiektuak eginez, inpaktu handikoak eta konpainietan epe laburreko emaitzetan gauzatzen direnak.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko martxoa.
ZENBATEKOA	2.700.000 €
HELBURUAK	Jardute eremuak:: <ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa • Barneko prozesu administratiboak • Ekoizpena • Logistika • Pertsonak • Bezeroak • Merkatu berriak • Produktua
ONURADUNAK	5 pertsona edo gehiagoko plantillak dituzten enpresak, Euskadin kokatuak eta jarduera industriallak, industriari lotutako zerbitzuetakoak, informazio eta komunikazio gizartekoak, logistikakoak eta handizkako merkataritzakoak gauzatzen dituztenak.
LANKIDETZA	Ez da beharrezkoa partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	Hazinnova 2024.ETEentzako berrikuntza - SPRIren laguntzak



PROGRAMA	KSIgune.
INTERES ESPARRUA	Goi Mailako Euskal Hezkuntzaren eta Euskadiko Sektore Kultural eta Sormenezko Erakundeen arteko ezagutza transferitzen laguntzea du helburu, elkarrekin egindako proiektuen bidez. Proiektu horiek Kultura eta Sormen Industrietako sektore bati edo gehiagori eragiten dieten erronka sektorialeiei aurre egiteko ekarpena egin behar dute.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko martxoa.
ZENBATEKOA	1. mota: Prestakuntzarako konexioa - 4.000 eurora arte. Beste lurralde batzuetatik etorritako hirugarrenekin egindako proiektuek 3.000 euro gehiago ere eskuratu ahal izango dituzte. Prestakuntza modalitateko proiektuetara bideratutako finantzaketa, guztira, 38.000 eurokoa da. 2. mota: Eraldaketarako konexioa - 12.000 eurora arte. Beste lurralde batzuetatik etorritako hirugarrenekin egindako proiektuek 3.000 euro gehiago ere eskuratu ahal izango dituzte. Eraldaketa modalitateko proiektuetara bideratutako finantzaketa, guztira, 52.000 eurokoa da.
HELBURUAK	Goi Mailako Hezkuntzako ikastetxeen eta Euskadiko sektore kultural eta sormenezko eragileen arteko lankidetzan oinarritutako prestakuntza eta transferentzia proiektuak garatzea bultzatzea eta babestea, erronka sozialei aurre egiteko.
ONURADUNAK	Deialdia Euskadiko Kultura eta Sormen Industrietan sartuta dauden enpresa eta erakunde pribatuei zuzenduta dago. ERAKUNDE BAZKIDEA Erakundeek pribatuak izan behar dute edo %50etik beherako parte hartze publikoa izan behar dute. BAZKIDE AKADEMIKOA Euskadiko goi mailako hezkuntzako ikastetxe homologo bat behar da gutxienez. ROLA PROIEKTUAN Erakunde bazkide bakoitzak proiektuaren arduradun bat izendatu behar du. EGOITZA SOZIALA EUSKADIN La entidad solicitante y su principal socia académica deben tener su sede social en Euska Erakunde eskatzaileak eta bere bazkide akademiko nagusiak Euskadin izan behar dute egoitza soziala. Beste erakunde akademiko eta enpresarial batzuk –Euskadikoak edo kanpokoak– hirugarren gisa atxiki daitezke. Akitania Berriko eta Nafarroako erakundeak lehenetsiko dira hirugarren izateko.
LANKIDETZA	Beharrezkoa da partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	KSIgune Konexioak KsiGune



PROGRAMA	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
INTERES ESPARRUA	<p>Ikerketarekin, berrikuntzarekin eta kultur arloko adierazpen garaikideekin konprometita dauden eta bitartekaritza baliatzen diren eta honako hauek bultzatzen dituzten kultura eta gizarte berrikuntzako proiektuei zuzendutako dirulaguntzak arautzea eta deitzea:</p> <ul style="list-style-type: none">• Hainbat sektore, arlo eta eragileren arteko kosorkuntza eta hibridazioa eta talentuaren sustapena, gure ingurunean daukagun ahalmen sortzailea ahalik eta gehien garatzeko.• Lan inguruneak eta plataforma teknologikoak erabiltzea lankidetzan, ikerketa eta ekoizpen moduak hedatzeko.• Harreman eta bitartekaritza bide berriak sortzea parte hartzaileengana eta askotariko publikoengana zuzentzeko, esperientzia esanguratsuagoak, bereziagoak eta kualitatiboagoak bultzatuz.• Praktika kulturaletatik berrikuntza kultural eta sozialerako estrategiak planteatzen dituzten ekimenak garatzea.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko martxoa.
ZENBATEKOA	500.000 €. Hautatutako proiektu bakoitzari emandako gehieneko zenbatekoa ezin izango da 35.000 euro baino handiagoa izan, ezta gastuen aurrekontuaren %70 baino handiagoa ere.
HELBURUAK	
ONURADUNAK	Orokorra
LANKIDETZA	Ez da beharrezkoa partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	Kultura eta gizarte berrikuntzako proiektuetarako dirulaguntzak (BITARTEZ 2024) - Eusko Jaurlaritza

BIZKAIA SORTZAILEA 2025

EUSKADI



PROGRAMA	Bizkaia Sortzailea 2025
INTERES ESPARRUA	Sormen industrian proiektu berritzaileak garatzea, hala nola produktu artistiko eta kultural berritzaileak garatzea, sorkuntza eta banaketa digitalizatzea eta negozio eredu digital berriak ezartzea.
HASIERA ETA ITXIERA	Gutxi gorabehera 2025eko apirila eta 2025eko maiatza bitartean.
ZENBATEKOA	<p>Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak, onartutako aurrekontuaren %80tik %100era bitartekoak, bideragarritasun azterketak, kontzeptuaren garapena, kanpoko aholkularitza eta, oro har, proiektuarekin lotu daitezkeen gastuak barne.</p> <p>Enpresa berriak eratzeko: gainera, kapital sozialaren %30era arte (15.000 euro gehienez); tokiko errentamendua: %80ra arte (10.000 euro gehienez); eta negozioaren garatzaile bat kontratatzea: %50era arte (20.000 euro gehienez)</p> <p>Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 85.000 euro izango da enpresa berrientzat eta 40.000 euro gainerako kasuetarako.</p>
HELBURUAK	Deialdiaren helburua da enpresa sortzaile berri bat eratzten laguntzea eta lehiakortasuna hobetzeko proiektuak babestea lehendik dauden enpresetan (adibidez, negozio lerro berriak abiaraziz edo dagoeneko garatutako produktuak nazioartean merkaturatuz).
ONURADUNAK	Lanaldi osoko enplegu baliokidea duten enpresa sortzaileak, ikus-entzunezko sektorean, bideojokoetan, modan eta produktu eta zerbitzuen diseinu industrialean dihardutenak. Era berean, onuradunak dira ekitaldiak antolatzeaz bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak edo profesionalak biltzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak; hala nola hitzaldiak, azokak, lehiaketak edo antzekoak eskaintzen dituztenak.
LANKIDETZA	Laguntza banakakoa da; lankidetzak zerbitzuen kontratazio bidez bakarrik egingo dira.
INFORMAZIO GEHIAGO	https://apli.bizkaia.net/apps/seguru/lantrebaret/JQD1/formularios/JQD1PrincipalAcceso.aspx?lang=cas&Acc=1

BDIH KONEXIO

EUSKADI



PROGRAMA	Eusko Jaurlaritza - SPRI
INTERES ESPARRUA	Manufaktura enpresen produktu eta zerbitzuen diseinuan eta garapenean teknologia digital eta jasangarriak txertatzen laguntzea.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko maiatza.
ZENBATEKOA	900.000 €
HELBURUAK	Basque Digital Innovation Hub (BDIH) osatzen duten aktiboen bideragarritasuna, aholkularitza eta laguntza teknikoa aztertzeke proiektuak, robotika malgu eta kolaboratiboaren, fabrikazio gehigarriaren, zibersegurtasunaren, makina konektatuen, material aurreratuen, gailu medikoen eta osasun digitalaren eta sare elektriko digitalen esparruetan.
ONURADUNAK	Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresa industrialak eta produktu zein prozesu industrialari lotutako zerbitzuetakoak.
LANKIDETZA	Partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan joateko aukera.
INFORMAZIO GEHIAGO	BDIH KONEXIO 2024. 4.0 teknologien azterketa - SPRIren laguntzak

ADIMEN ARTIFIZIAL APLIKATUA ETA DATUAREN ESTRATEGIA



EUSKADI

PROGRAMA	SPRI.
INTERES ESPARRUA	Adimen Artifizialean oinarritutako zerbitzu eta/edo soluzio komertzialak aplikatzeko proiektuak babestea Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan, enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Era berean, datuaren kudeaketa estrategikoaren esparruko proiektuak babestuko dira, baldin eta Adimen Artifizialean oinarritutako soluzioak bizkortzea bada helburua.
HASIERA ETA ITXIERA	Ixtekoa: 2025eko ekainaren 30a.
ZENBATEKOA	100.000 eurora arte, Adimen Artifizialaren erabilera sustatzeko. Itzuli beharrik gabeko laguntza, %50era eta 100.000 eurora artekoa enpresa bakoitzeko, Adimen Artifizialean oinarritutako zerbitzu eta/edo soluzio komertzialak aplikatzeko proiektuetarako, baldin eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko bada. Halaber, diruz lagun daitezkeen jardueratzat hartuko dira enpresa eskatzaileei datuen azpiegiturak prestatzea ahalbidetzen dieten proiektuak, ondoren Adimen Artifizialeko proiektuak egin ditzaten.
HELBURUAK	AAko soluzioak integratzea datuen erabilera optimizatzeko, prozesu kritikoak automatizatzeko eta erabaki azkarrago eta zehatzagoak hartzeko.
ONURADUNAK	Orokorra
LANKIDETZA	Ez da beharrezkoa partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	Adimen Artifizial Aplikatua eta Datuaren Estrategia 2024 - SPRIren laguntzak

KSIETAKO BERRIKUNTZA PROIEKTUAK



ESPAINIA

PROGRAMA	Proiektu profesional eta enpresarialetarako laguntzak, kultura eta sormen industrietan berrikuntza sustatzeko (Kultura Ministerioa).
INTERES ESPARRUA	KSlen proiektu txikiei eta esperientzia berritzaileei laguntzeko programa. KSlei zuzenduta, honako eremu hauetan jarduten badute: teknologia berrien bidez eskainitako produktu eta zerbitzu kulturalak sortzea, sektore kulturalaren jasangarritasuna, eskaintza kulturalaren sorrera eta hedapena bultzatzea, kudeatzaile eta ekintzaile kulturalak prestatzea, sektorearen nazioartekotzean aurrera egitea, parte hartzea sustatzea, mezenasgoa bultzatzea eta KSletan emakumeen presentzia sustatzea.
HASIERA ETA ITXIERA	Hiru astez irekita (2025eko apirila eta uztaila bitartean aurreikusitako tarte batean izango da).
ZENBATEKOA	Gehienez 50.000 euroko laguntza eskatu ahal izango da. Proiektuaren kostuen estalduraren ehunekoa %60tik %80ra doa, eskatutako laguntza bolumenaren arabera (%80, 25.000 euro baino gutxiagoko dirulaguntzetarako; %70, 25.000 eta 40.000 euro bitarteko dirulaguntzetarako; eta %60, 40.000 eta 50.000 euro bitarteko dirulaguntzetarako).
HELBURUAK	Programa honek KSlak modernizatzen eta berritzen laguntzen duten irabazi-asmoko proiektuak babesten ditu. Adibidez, edukiak sortzeko eta hedatzeko praktika berritzaileak sustatuz; garapen teknologikoan, jasangarritasunean, nazioartekotzean edo mezenasgoaren sustapenean inbertituz; aliantzak sortuz, etab.
ONURADUNAK	KSlen sektoreetako mikroenpresak: arkitektura, ikus-entzunezko arteak, arte eszenikoak, arte plastikoak eta bisualak, zinema, diseinua, kudeaketa kulturala, liburuak, moda, musika eta dantza, hedabideak, ondare kulturala eta turismo kulturala.
LANKIDETZA	Laguntzak banakakoak dira, baina proiektuen helburuetan jaso daiteke aliantzak eta lankidetzaren sareak sortu behar direla KSlen berrikuntzarako.
INFORMAZIO GEHIAGO	https://www.cultura.gob.es/servicios-al-ciudadano/catalogo/general/99/995758/ficha/995758-2024.html

BERRIKUNTZA DIGITALEKO ZENTROEI LAGUNTZEA (PADIH)

ESPAINIA



PROGRAMA	Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana. Espainiako Gobernuak
INTERES ESPARRUA	Espainiako ekoizpen sektoreko ETEen lehiakortasuna hobetzea, teknologia digital disruptiboak ezartzeko berrikuntzaren arloko aholkularitza eta laguntza zerbitzuak emanda.
HASIERA ETA ITXIERA	2025/09/30era arte.
ZENBATEKOA	<p>Diruz lagun daitezkeen gastuen %50era arte gehienez. ETEak bere beharretara ondoen egokitzen diren zerbitzuak sartuko ditu bere eskaeran. Eskatutako zerbitzuen baturak ezin izango du dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa gainditu: 30.000 euro.</p> <p>Zerbitzu motaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Teknologia inplementatzeko hasierako aholkularitza: 10.000 euro gehienez. • Saiakuntzak eta esperimenezioa, kontzeptuko proba teknologikoak barne: 20.000 euro gehienez. • Teknologia inplementatzeko eta kudeatzeko oinarrizko ezagutzei buruzko prestakuntza: 5.000 euro gehienez. • Teknologia inplementatzeko finantzaketa bilatzeko aholkularitza: 5.000 euro gehienez. • Berrikuntzako sare eta ekosistemarako sarbidea babestea: 5.000 euro gehienez..
HELBURUAK	<p>Deialdiak enpresa txiki eta ertainei (ETE) laguntzen die, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barneko Berrikuntza Digitaleko Zentroak (DIH) programaren bidez. Helburua da ETEetan berrikuntza bultzatzea, teknologia digitalak jartzeko aholkularitza tekniko espezializatuko zerbitzuak finantzatzuz. Zerbitzuetan aholkularitza, esperimenezioa, prestakuntza, finantza orientazioa eta berrikuntza sareetarako sarbidea sartzen dira.</p> <p>ETEek beren beharretara egokitzen diren zerbitzuak aukeratzen dituzte, gehienez ere proiektuko 30.000 euroko dirulaguntzarekin.</p>
ONURADUNAK	Programaren onuradunak enpresa txiki eta ertainak dira (ETEak), beren lehiakortasuna eta negozio ereduak hobetzeko berri eta teknologia digitalak jarri nahi dituztenak.
LANKIDETZA	Programa honen onuradun izateko, beharrezkoa da hirugarren batekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	https://www.eoi.es/es/padih

ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZAKO MISIOAK

ESPAINIA

PROGRAMA	Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroa (CDTI)
INTERES ESPARRUA	Laguntza deialdi honen helburua da lankidetzaren arloko I+G proiektuak finantzatzea, enpresek gida-tutakoak, baldin eta gizarte garatuek dituzten erronka sozioekonomikoei erantzuteko egindakoak badira.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko uztaila.
ZENBATEKOA	84.000.000 euro. Dirulaguntza, gehieneko intentsitateko mugetaraino: %65, Enpresa Handientzat; %75, Enpresa Ertaintentzat; eta %80, Enpresa Txikientzat. Laguntzen banakako zenbatekoa proiektuaren kostu finantzarri errealean, onuradunaren ezaugarrien eta aurrekontu baliabideen arabera zehaztuko da.
HELBURUAK	2024an hautatutako misio batzuk: <ul style="list-style-type: none">Eraikuntza eraginkorrak, jasangarriak, ingurumena errespetatzen dutenak eta klima aldaketara egokituak.Jasangarritasuna eta eraginkortasuna prozesatzean eta ontziratzean, elikagaien industria segurua eta kalitatezkoa izateko.
ONURADUNAK	Gutxienez bi eta gehienez sei enpresak osatutako taldeak; horietako bi, gutxienez, autonomoak. Enpresek behar bezala eratuta egon behar dute, nortasun juridiko propioa izan behar dute eta egoitza soziala Espainian izan behar dute. Elkartearen enpresa ordezkaria enpresa handi bat edo ETE bat izan daiteke, mikroenpresen modalitatea alde batera utzita. Partzuergoan ETEa den enpresa batek parte hartu behar du gutxienez. Sortzen den taldeak ez du nortasun juridikorik izango, eta, beraz, partaideetako bat koordinatzaile edo ordezkari izango da Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroan. Ordezkariak emandako laguntzaren ordainketa jasoko du, eta elkarteko kideen artean banatzeko ardura izango du.
LANKIDETZA	Beharrezkoa da partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	Zientzia eta Berrikuntza misioak 2024 CDTI

EUROSTARS-3

ESPAINIA



PROGRAMA	Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroa (CDTI)
INTERES ESPARRUA	Merkatutik gertu dauden I+G proiektuak babestea; hain zuzen, ETE berritzaileek gidatutakoak eta nazioarteko lankidetzan garatutakoak.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko abuztua.
ZENBATEKOA	5.470.646,40 euro. Eskaera eta onuradun bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 400.000 euro da, deialdiak ezartzen duen gehieneko laguntza intentsitatearekin.
HELBURUAK	Proiektuetan diruz lagun daitezkeen jarduerak halakotzat definitutakoak izango dira, Horizonte Europa Programaren arauen arabera.
ONURADUNAK	Espainiako enpresa txiki eta ertainak. Enpresa handiak ezingo dira onuradun izan.
LANKIDETZA	Ez da beharrezkoa partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	Eurostars-3 (2024, CoD6) CDTI

FOND-ICO NEXT TECH FUNTSA

ESPAINIA



PROGRAMA	Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa
INTERES ESPARRUA	Inpaktu handiko proiektu digital berritzaileen garapena eta hazten ari diren enpresetan inbertsioa (scale-upak) sustatzeko helburua, finantzaketa tresna publikoak indartuz, nazioarteko funtsak erakarriz eta arrisku kapitalaren sektorea indartuz.
HASIERA ETA ITXIERA	Irekia
ZENBATEKOA	2.000.000.000,00 euro. Funtsa lankidetzan publiko-pribatuan 4.000 milioi eurora arte mobilizatzeko asmoarekin sortu zen, Espainiako arrisku kapitalaren sektorearekin batera partaidetzak hartuz eta konpromisoak sinatuz, batez ere hurrengo sektore digitaletan eta adimen artifizialean espezializatutako enpresa/funtsetan.
HELBURUAK	
ONURADUNAK	Orokorra
LANKIDETZA	Ez da beharrezkoa partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	Fondo FOND-ICO Next Tech Funtsa Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana Espainiako Gobernua.

JOURNALISM PARTNERSHIP - PLURALISM

EUROPA



PROGRAMA	Europa Sortzailea Programa (CREA)
INTERES ESPARRUA	Sektore arteko lankidetzak sustatzeko deialdia da, hedabideak aurre egin beharreko aldatuta estruktural eta teknologikoetara egokitu daitezkeen (ingurune mediatiko libre, askotariko eta pluralista, kalitateko kazetaritza eta alfabetizazio mediatikoa; tartean, esparru digitala).
HASIERA ETA ITXIERA	2025eko otsailaren 27ra arte.
ZENBATEKOA	2,5 milioi euro, proiektuko.
HELBURUAK	Espero den inpaktua: <ul style="list-style-type: none"> • Europako hedabideen erresilientzia, pluralismoa eta independentzia editoriala handitzea, hala nola tokiko, eskualdeko eta erkidegoko hedabideena, ikerketarako hedabideena edo interes publikoko gaietan espezializatutako hedabideena. • Hedabideen sektoreetan erakunde aktiboaren erresilientzia handitzea eta panorama mediatikoa babestea. • Hautatutako hedabideen sektoreetan teknologia berriak hobeto asimilatzeak hedabideen pluralismoari eta horien panoramaren aniztasunari laguntzen dio. • Interes publikoko albisteak zabaltzen dituzten hedabideen sektoreei buruzko ezagutzak sustatzea (adibidez, kalitate handiko edukien eskaintza urria duten eta/edo hedabideen aniztasuna mugatuta duten eremuak hautemanetz).
ONURADUNAK	Banakako onuradunen eskaerak onartzen dira, bai eta gutxienez bi eskatzaileko partzuergo batek aurkeztutako proposamenak ere (onuradunak, ez erakunde afiliatuak). Ekintza irekita egongo da hedabideen sektorean lan egiten duten gizarte zibileko erakundeei. Erakunde horiek hedabideei, elkarteei eta kazetariei zuzendutako hirugarrenei laguntzeko sistemak ezartzeko moduan egon behar dute, Batasun osoko hedabide pluralisten paisaiak hobetzeko.
LANKIDETZA	Partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan joateko aukera.
INFORMAZIO GEHIAGO	JOURNALISM PARTNERSHIP - PLURALISM. Deialdiak. Europa Sortzailea Desk Media Euskadi



PROGRAMA	Europa Sortzailea Programa (CREA)
INTERES ESPARRUA	Mugaz gaindiko alfabetatze mediatikoko ekimen eta komunitate berritzaileak garatzeko deialdia. Helburu horrekin, alfabetatze mediatikoko ekintzek politikiei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutzen trukea sustatuko dute.
HASIERA ETA ITXIERA	2025eko martxoaren 6ra arte.
ZENBATEKOA	Proiektuaren aurrekontua (dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa): 500.000 euro proiektuko (emandako dirulaguntza eskatutako kopurua baino txikiagoa izan daiteke). Aurrekontuan oinarrituko da dirulaguntza (kostu errealak, kostu unitarioak eta oroharreko prezioko elementuak). Horrek esan nahi du kostu mota batzuk BAKARRIK ordainduko direla (gastu hautagarriak) eta proiekturako benetan sortu ziren kostuak (aurrekontuan jasotako gastuak EZ). Grant Agreementen ezarritako %70eko kofinantzazio ehunekoa.
HELBURUAK	<ol style="list-style-type: none"> 1. Alfabetatze mediatikoko proiektu berritzaileen jardunbide onenak aprobetxatzen, partekatzen eta hedatzen dituzten jarduerak (egungo ekosistema mediatikoa kontuan hartuta), bereziki muga kulturalak, nazionalak edo linguistikoak zeharkatuz, Europako eskualdeen arteko lankidetzaz indartu ahal izateko. 2. Sareko tresna berritzaile eta interaktiboak garatzea, sareko ingurunearen egungo eta etorkizuneko erronketara egokituta (tartean, desinformazioa). 3. Herritarrei hedabideekiko ikuspegi kritikoa garatzea ahalbidetzen dieten materialak eta tresnak lantzea, era horretan desinformazioa ezagutzeko eta horri erantzuteko. 4. Alfabetizazio mediatikoko praktikak garatzea ingurune mediatiko aldakorrera egokituta; hala nola AAn oinarritutako manipulazio eta ekoizpen mediatikoko teknikak.
ONURADUNAK	Europako erakunde juridikoak (erakunde publiko edo pribatuak, nazioarteko erakundeak, elkarte eta interes taldeak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak –pribatuak edo publikoak–, agintari publikoak –nazionalak, eskualdekoak edo tokikoak–, unibertsitateak eta hezkuntza erakundeak, hedabideen erakundeak, ikerketa eta teknologia erakundeak eta teknologia hornitzaileak), baldin eta gutxienez MEDIA azpiprograman parte hartzen duten hiru herrialdeetatik datozen hiru lege erakunde independentek osatutako partzuergoa aurkezten badute.
LANKIDETZA	Beharrezkoa da partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	NEWS - MEDIA LITERACY. Deialdiak. Europa Sortzailea Desk Media Euskadi

VIDEO GAMES AND IMMERSIVE CONTENT DEVELOPMENT



EUROPA

PROGRAMA	Europa Sortzailea Programa (CREA) - Media
INTERES ESPARRUA	Bideojokoen ekoizleentzako, XR estudioentzako eta ikus-entzunezko produkzioko enpresentzako deialdia, bideojokoak eta ikus-entzule globaletara iristeko ahalmena duten esperientzia murgiltzaile interaktiboak garatzeko.
HASIERA ETA ITXIERA	Ixtekoa: 2025/02/12.
ZENBATEKOA	Oroharreko prezioan kalkulaturako zenbatekoa, aurreikusitako proiektuaren aurrekontuaren oinarriari %60ko kofinantzaketaren ehuneko aplikatu ondoren. Europar Batasunak emango duen gehieneko dirulaguntza 200.000 eurokoa izango da proiektuko (emandako dirulaguntza eskatutako kopurua baino txikiagoa izan daiteke).
HELBURUAK	<p>Hauek dira Planaren helburu orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Europako kultura eta hizkuntza aniztasuna babestea, garatzea eta sustatzea eta ondarea; • Sormenezko sektoreen lehiakortasuna eta potentzial ekonomikoa handitzea; bereziki, ikus-entzunezkoen sektorearena.
ONURADUNAK	<p>Bideojokoen ekoizpeneko europar enpresak, XR estudioak eta ikus-entzunezko produkzioko enpresak, bideojokoen ekoizpenean duela gutxi izandako esperientzia eta komertzialki banatutako esperientzia narratibo interaktiboak froga ditzaketanak. Banakako eskaerak onartuko dira edo gutxienez bi eskatzailek osatutako partzuergoak egindakoak (onuradunak, erakunde afiliatuak ez direnak).</p> <p>Bideojokoak ekoizten dituzten enpresak, XR estudioak eta ikus-entzunezko ekoizpeneko enpresak izango dira hautagarriak, baldin eta helburu eta jarduera nagusi hauek badituzte: produkzioa, bideojokoen garapena (entretanimendua), softwarearen garapena edo ikus-entzunezko produkzioa (edo baliokidea), dagozkien erregistro dokumentu nazionaletan adierazita.</p>
LANKIDETZA	Partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan joateko aukera.
INFORMAZIO GEHIAGO	VIDEO GAMES & IMMERSIVE CONTENT DEVELOPMENT. Deialdiak. Europa Sortzailea Desk Media Euskadi



PROGRAMA	Europa Sortzailea Programa (CREA)
INTERES ESPARRUA	Soluzio berritzaileak sortzea (tresnak, ereduak eta metodologiak), ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sormenaren sektoreetako eragileak sustatzeko.
HASIERA ETA ITXIERA	2025eko apirilaren 24ra arte.
ZENBATEKOA	Ez dago mugarik. Kostuak dirulaguntza akordioan ezarritako finantzaketa motaren arabera itzuliko dira (%70).
HELBURUAK	Sektore sortzaile eta kulturalen praktika jasangarrien edo 'greening' direlakoan sustapena berriaz jorratuko da, horien ingurumen trantsizioa laguntzeko; eta, era berean, datuen bilketa eta azterketa, gardentasuna, adimen artifizialaren eta makrodatuen erabilera egokia, sektore horietako egungo aldaketek bultzatutako erronka eta aukeretara egokitzea bezalako gaiak lantzeko hezkuntza tresna berritzaileak sortzea.
ONURADUNAK	Europako erakunde juridikoak (enpresa pribatuak, publikoak, nazioarteko erakundeak, enpresa teknologiko eta sortu berriak, ikus-entzunezkoak, kulturalak eta sortzaileak, enpresen inkubatzailak eta azeleratzaileak, etab.), MEDIA azpiprograman parte hartzen duten herrialdeetatik datozen gutxienez bi lege erakundek osatutako partzuergoa aurkezten dutenak (erakunde afiliatuak ez direnak). Era berean, onuradun banakoen eskaerak onartuko dira.
LANKIDETZA	Beharrezkoa da partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzea.
INFORMAZIO GEHIAGO	CREATIVE INNOVATION LAB. Deialdiak. Europa Sortzailea Desk Media Euskadi

BERRIKUNTZA SORTZAILERAKO LABORATEGIA

**EUROPA**

PROGRAMA	Europa Sortzailea Programa (CREA)
INTERES ESPARRUA	Ikus-entzunezko sektorearen eta beste sektore kultural eta sortzaile batzuen arteko lankidetzaz bultzatzea du helburu nagusi.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025
ZENBATEKOA	Deialdiko guztizko aurrekontua 7.482.102 €-koa da. Proiektu bakoitzeko aurrekontu mugarik ez dago, eta kofinantzaketaren gehieneko ehuneko %70ekoa da.
HELBURUAK	Europako ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sormenaren sektoreari laguntzea du helburu, adimen artifizialaren eta mundu birtualen garapenak eskaintzen dituen aukeretara hobeto egokitzeko. Hainbat sektore kultural eta sortzailetako eragileak sustatu nahi ditu -tartean, ikus-entzunezkoena-, erronka nagusiei erantzun dieten eta JBEetako sektore askotan epe luzera inpaktu positiboa eskainiko duten soluzio digital berritzaileak diseinatzen eta probatzen elkarrekin lan egiteko.
ONURADUNAK	Erakunde eskatzaileak publikoak eta/edo pribatuak izan daitezke, irabazi-asmoarekin edo gabe, programan parte hartzen duten herrialdeetakoren batean finkatuta egon behar dute, eta zuzenean edo zeharka, erabat edo nagusiki herrialde horietakoak izan behar dute. Ez da derrigorrezkoa partzuergo bat sortzea (banakako eskatzaileak izan daitezke). Hala ere, sektore arteko ikuspegia funtsezkoa da, eta Europako erakunde ugari parte hartzea gomendatzen da (besteak beste, publikoak eta pribatuak, enpresa teknologikoak, <i>start-up</i> eta azeleratzaileak, ikerketa zentroak, unibertsitateak, agintari publikoak...).
LANKIDETZA	Partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan joateko aukera.
INFORMAZIO GEHIAGO	https://europacreativa.es/convocatorias/laboratorio-de-innovacion-creativa-2024/

DIGITAL INNOVATION HUBS-I LAGUNTZEKO PROGRAMA



EUROPA

PROGRAMA	Europa Digital programa - Industria Antolakuntzako Eskola
INTERES ESPARRUA	ETEEi gauzazko laguntzak emateko deialdia, digitalizazioa bultzatzeko, digitalizazio soluzio disruptiboak hartzea errazten duten zerbitzuen bidez, European Digital Innovation Hubsek (EDIH) emandakoak.
HASIERA ETA ITXIERA	Eskaerak aurkezten hasteko data: 2023ko urtarrilaren 30a (09:00etan). Eskaerak aurkezteko amaiera data: 2025eko irailaren 30a (23:59an) (aurrekontu kreditua agortzen bada, lehenago).
ZENBATEKOA	Kreditu erabilgarria deialdian = 7.644.067 euro. ETEak zerbitzuengatik jaso dezakeen zenbatekoa 30.000 eurokoa da gehienez.
HELBURUAK	Agindu honetan araututako laguntzen helburua ETEen berrikuntza sustatzea da, EDIHen Europako programaren bidez. Horretarako, edozein ekoizpen sektoretako ETEek teknologia digital disruptiboak berritzea eta jartzea bultzatuko da, eta EDIHetako erakundeek laguntzen onuradun diren ETEei zerbitzuak ematea finantzatuko da.
ONURADUNAK	Onuradun izan daitezke nortasun juridiko propioa duten, egoitza fiskala Espainian duten eta jarduera ekonomikoa egiten duten ETEak.
LANKIDETZA	Aukera dago partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzeko.
INFORMAZIO GEHIAGO	Prozeduraren xehetasunak - Bulego Birtuala

ETEEN AZELERAZIOA ETA ZABALKUNTZAK



EUROPA

PROGRAMA	EIT Culture & Creativity
INTERES ESPARRUA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura eta sormen sektore eta industrien (CCSI) ikasleak eta profesionalak etorkizunerako prestatzea, trantsizio ekologiko eta digitalerako enpresa eta diziplina arteko trebetasunekin. 2. Kultura eta sormen sektore eta industrien (CCSI) teknologia ekologiko eta digitaletan eta negozio eredu berrietan dituen berrikuntzak ezartzea eta hedatzea, inpaktu sozial eta ekonomiko positiboa sortuz. 3. Kultura eta sormen sektore eta industrien (CCSI) merkatu aukerak azkartzea eta hedatzea, mundu mailan lehiatzeko.
HASIERA ETA ITXIERA	Aurreikuspena: 2025eko urria.
ZENBATEKOA	Azeleraziorako, hedapenean dauden 30 ETE eta enpresa hautatuko dira guztira, eta horrek deialdi honen aurrekontu osoa 600.000 eurora igotzen du.
HELBURUAK	<ol style="list-style-type: none"> 1. HE: Hezkuntza: KSletako ikasleen eta profesionalen trebetasunak etorkizunerako prestatzea. Helburua diziplina arteko hezkuntza programak sortzea eta inplementatzea da, KSletako ikasleen eta profesionalen etorkizuneko trebetasunak garatzeko, eta baita sormena eta diseinua zeharkako trebetasun gisa dituzten beste sektore batzuk ongarritzea ere. 2. HE: Berrikuntza: jabetza intelektualaren balioa eta Europako KSlen potentziala eskalatzea, errealitate hibridoetan domeinuen arteko lankidetzaren bidez. 3. HE: Sorrera: KSlekin enpresa eta ekintzailatza sozialak sortzea eta eskalatzea, eta merkatu eta audientzia globaletarako sarbidea handitzea. 4. HE: Gizartea: KSletako eragileen bidez modu berritzaileak eta inklusiboak irudikatu eta inplementatzea, Europako balioak eta komunitateak indartzeko (berrikuntza soziala). 5. HE: Sistemak: KSlen esparruak hastea eta hobetzea, Europa erresiliente baterako eraldaketa ekologiko, digital eta sozialek pertsonentzat funtziona dezaten.
ONURADUNAK	<p>Proposamenen deialdi hau hasierako fasean dauden ETEentzat eta sektore eta kultura eta sormen industrien barruan hedatzen ari diren enpresentzat diseinatuta dago berriaz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa izaera: eskatzaileak heldutasun jakin bat daukan ETE bat izan behar du, negozio eredu edo produktu probatu berria duen enpresa mikro edo ertain bat, edo hedatzen ari den enpresa bat (gutxienez 3 urteko antzintasuna duen enpresa, azken 2 urteetan urteko batez besteko %5eko gutxieneko hazkundera duena), EIT CCKo lehentasuneko 5 arloetako batean gutxienez aktiboki lan egiten duena: moda, arkitektura, ondare kulturala, ikus-entzunezkoak eta jolasak. • Garapen etapa: eskatzaileek hedatzen ari diren enpresak eta heldutasun jakin bat duten ETEak, dagoeneko merkatuan daudenak, izan behar dute, gutxienez 3 urteko jarduera operatiboarekin. • Onuradun bakarra: eskaerak lege erakunde bakar batek aurkeztu behar ditu.
LANKIDETZA	No se requiere ir en consorcio o en colaboración con terceros.
INFORMAZIO GEHIAGO	BC-Call-for-Proposals-2024_acceleration-programme_FINAL_v3-1.pdf

EIT BERRIKUNTZA 2024-CALLS FOR PROPOSALS

**EUROPA**

PROGRAMA	EIT Culture & Creativity.
INTERES ESPARRUA	Europako KSletan berrikuntza bultzatzea, lehiakortasuna indartuz, jasangarritasuna sustatuz eta soluzio eraldatzaileen bidez haren eragina sustatuz.
HASIERA ETA ITXIERA	2024ko abenduan irekitzea aurreikusten da (baieztatzeke dago).
ZENBATEKOA	Berresteko zain (aurreko deialdietan, finantzaketa 100.000 eta 500.000 euro bitartekoa izan zen proiektu bakoitzeko).
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• 2. Helburu estrategikoa (Berrikuntza) betetzen laguntzea, kultura eta sormen industriak eraldatzeko ikuspegi berritzaileak dituzten proiektuak sustatuz.• ura sektorean jasangarritasuna, digitalizazioa eta sormena sustatzen dituzten ekimenak babestea.
ONURADUNAK	Enpresak, startupak, kultura erakundeak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak eta KSlekin lotutako erakundeak.
LANKIDETZA	Partzuergoan edo hirugarrenekin lankidetzan aritzeko eskatzen da. Deialdia egiteko, nazioarteko partzuergoak sortu behar dira, Europako hainbat herrialdetako bazkideak barne. Lankidetzak eragin nabarmena bermatu behar du sektorean.
INFORMAZIO GEHIAGO	https://eit.europa.eu/our-activities/opportunities/eit-culture-creativity-launches-first-open-calls-proposals

EIC ACCELERATOR 2025 - SHORT APPLICATION



EUROPA

PROGRAMA	Horizon Europe (HORIZON)
INTERES ESPARRUA	Enpresei (batez ere ETEei eta start-upei) laguntzea du helburu, arrisku handiko eta eragin handiko berrikuntzak gara ditzaten, eta merkatu berriak sortzeko edo daudenak aldatzeko potentziala izan dezaten.
HASIERA ETA ITXIERA	2024/10/29 - 2025/12/18
ZENBATEKOA	<p>Laguntza ekonomikoa: diruz lagun daitezkeen gastuen %70era arte, proiektu bakoitzeko gehieneko zenbateko honekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dirulaguntza: 2,5 M€-ra arte, berrikuntza jardueretarako bakarrik (TRL 6-8), 24 hilabeteko epean osatuko dena. • Inbertsioa: 10 M€-ra arte, merkatuan hedatzeko (TRL 9).. <p>Laguntza teknikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bazkide globalerako sarbidea. • Entrenatzaile eta aholkularientzako sarbidea (esperientzia eta gaikuntza). • Berrikuntza ekosistemarako eta parekoetarako sarbidea..
HELBURUAK	<p>EIC azeleragailua aurkikuntza zientifikoetan edo aurrerapen teknologikoetan (<i>Deep tech</i>) oinarritutako berrikuntzetan zentratzen da, eta horietan, etekinak sortu aurretik, finantzaketa handia behar da denbora luzez.</p> <p>EIC azeleragailuak garapen teknologikoaren azken etapak eta hedapena babesten ditu. Beraz, berrikuntzaren osagai teknologikoa laborategi eta ingurune garrantzitsu batean probatu eta baliozkotu behar da.</p>
ONURADUNAK	ETEak, <i>mid-cap</i> txikiak (499 pertsona gehienez) eta ETE bat sortu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoak.
LANKIDETZA	EBko hainbat herrialde kide edo elkartutako gutxienez hiru lege erakunde independentetako diziplina arteko partzuergoak.
INFORMAZIO GEHIAGO	EIC azeleragailua



- ▷ Euskadiko Kultura eta Sormen Industriak (KSI) - Eusko Jaurlaritzza - [Euskadi.eus](https://euskadi.eus)
- ▷ Lehendakaritza - Presidencia · Gobierno Vasco · [Euskadi.eus](https://euskadi.eus)
- ▷ Europako Informazioaren Euskal Sarea (EIES) (euskadi.eus)
- ▷ Europa Sortzailea Desk Media Euskadi (europacreativaeuskadi.eu)
- ▷ MOVES III 2021-2023 Programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. - EEE
- ▷ Basque Fondo 2024 - SPRIren laguntzak
- ▷ Home | CDTI
- ▷ KsiGune
- ▷ Etxepare Euskal Institutua | Basque Institute | Etxepare Euskal Institutua
- ▷ Elkargi - Balioa duten finantza soluzioa
- ▷ Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikoko Ministerioak Transformazio Teknologikorako Estatuko Sozietatea sortuko du, berrikuntzaren arloko inbertsio publikoan lider izateko (mineco.gob.es)
- ▷ Kultura Ministerioaren webgunearen azala | Kultura Ministerioa
- ▷ BDCC Hasiera (euskadi.eus)
- ▷ Gipuzkoako Foru Aldundia - Gipuzkoa
- ▷ Arabako Foru Aldundia - Zurekin bat (araba.eus)
- ▷ Hasiera - [Bizkaia.eus](https://bizkaia.eus)
- ▷ Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Espainia | Emisio eta Iturri Kutsatzaileen Estatuko Erregistroa (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Espainia)
- ▷ Ikerketa zentroa | Garapen teknologikoa | Tecnalia
- ▷ Innobasque - Innobasque
- ▷ Daniel eta Nina Carasso Fundazioa (fondationcarasso.org)
- ▷ Espainiako Kultura Ekintza
- ▷ Hasiera - Biodibertsitate Fundazioa (fundazioa-biodiversidad.es)
- ▷ BBVA Fundazioa: ikerketa eta kultura jarduerak sustatzea (fbbva.es)
- ▷ Home - Fundación "la Caixa" (fundacionlacaixa.org)

EUROPA



- ▷ **CulturEU Funding Guide | Culture and Creativity (europa.eu)**
- ▷ **Press corner | European Commission (europa.eu)**
- ▷ **Calls for proposals | EU Funding & Tenders Portal (europa.eu)**
- ▷ **Interreg Europe | Interreg Europe - Sharing solutions for better policy**
- ▷ **POCTEFA**
- ▷ **Eurorégion Nouvelle-Aquitaine, Euskadi, Navarre (euroregion-naen.eu)**
- ▷ **DGFE:(Europako Funtzen Zuzendaritza Nagusia): Egitura funtsak (hacienda.gob.es)**
- ▷ **EIT Culture & Creativity – Funded by the European Union (eit-culture-creativity.eu)**
- ▷ **Horizonte Europa Ataria | Horizonte Europa**
- ▷ **MEDIA España bulegoa - Kultur Fundazioa (oficinamediaespana.eu)**
- ▷ **Home - European Union (europa.eu)**
- ▷ **New European Bauhaus: beautiful, sustainable, together. - European Union (europa.eu)**
- ▷ **European Regional Development Fund (ERDF) - European Commission (europa.eu)**
- ▷ **EACEA - European Commission (europa.eu)**
- ▷ **Nor gara? | European Youth Ataria (europa.eu)**
- ▷ **Asylum, Migration and Integration Fund (2021-2027) - European Commission (europa.eu)**
- ▷ **LIFE - European Commission (europa.eu)**
- ▷ **Connecting Europe Facility - European Commission (europa.eu)**
- ▷ **Hasiera | Erasmus+ (europa.eu)**
- ▷ **ACP EU CULTURE (acp-ue-culture.eu)**
- ▷ **Orrialde nagusia - EUIPO (europa.eu)**
- ▷ **DCNETWORKS**
- ▷ **S+T+ARTS**
- ▷ **Home | Stimuleringsfonds**
- ▷ **Boosting the Impact Economy | Fundación Ship2B**

BESTE BATZUK



- ▷ [Enpresa berritzaileak sortzea - Bizkaia.eus](#)
- ▷ [Encc - European Network of Cultural Centres \(ENCC\)](#)
- ▷ [Culture Action Europe](#)
- ▷ [Home - Encatc](#)
- ▷ [Gure nortasuna | CISAC](#)
- ▷ [Trans Europe Halles - Trans Europe Halles \(teh.net\)](#)
- ▷ [ecce - european centre for creative economy: NICE Network \(e-c-c-e.de\)](#)
- ▷ [concerthallorganisation.eu](#)
- ▷ [Home | European Theatre Convention](#)
- ▷ [Home Page - ASSITEJ International \(assitej-international.org\)](#)
- ▷ [EUROPEAN ASSOCIATION FOR THEATRE CULTURE - Theatreculture](#)
- ▷ [Home | Opera Europa \(opera-europa.org\)](#)
- ▷ [BEDA - The Bureau of European Design Associations](#)
- ▷ [Circostrada • European network for contemporary circus and outdoor arts](#)
- ▷ [Circostrada • European network for contemporary circus and outdoor arts](#)
- ▷ [Circostrada • European network for contemporary circus and outdoor arts](#)
- ▷ [Home | CEPI \(cepi-producers.eu\)](#)
- ▷ [Home | EBU](#)
- ▷ [Europa Cinemas - Homepage \(europa-cinemas.org\)](#)
- ▷ [EBLIDA - Community Hub of Libraries in Europe](#)
- ▷ [Homepage - Europa Nostra](#)
- ▷ [European Association for Music in Schools | The European Association for Music in Schools is a music education network. It brings together all those concerned with music education to share and exchange knowledge and experience in professional fields and to advocate for high quality music education accessible to all. \(eas-music.org\)](#)
- ▷ [Home - European Festivals Association \(efa-aef.eu\)](#)

ESTEKA INTERESGARRIAK

BESTE BATZUK



- ▷ [Home - European Music Council \(EMC\) \(emc-imc.org\)](#)
- ▷ [European Media Art Platform \(EMAP\) Residencies | European Media Art Platform \(emare.eu\)](#)
- ▷ [Hasiara | FEMP - Udalerrri eta Probintzien Espainiako Federazioa](#)
- ▷ [Interreg Europe | Sharing solutions for better policy](#)
- ▷ [SNPSAP](#)
- ▷ [Atlantic Area](#)